



musikagela

Barne araudia

2016 Apirila

Sarrera

Donostia Kulturak Musikagela zerbitzua eskaintzen du, Egia eta Intxaurrendoko kultura zentroetan, Buenawista Prolleckioms Elkartek kudeatuta eta dinamizatuta. Guztira, zerbitzua emateko 12 lokal erabiltzen dira eta horietako zazpi Egian daude eta gainerako bostak Intxaurrendon.

Araudi honetako arauen helburua ekipamendu berarekin hainbat errealitateri erantzuna ematea da. Horregatik, entsegu-lokalak erabiltzeko eta gozatzeko bi era planteatzen dira, proiektu bakoitzak aurkezten duen errendimenduaren arabera. Abiapuntua txandaketen ereduak da. Txandaketen ereduaren lokalak erabileraren segimendua egiten da eta **sei hilabetetik behin berrikusi** egiten dira, gehien entseatzeko duten taldeen baldintzak malguagoak izan daitezkeen, orduak erreserbatzeko eta lokaletako hornikuntzari dagokienez.

Entseatzeko erabiltzen den denbora da hautaketa egiteko dagoen irizpiderik objektiboena. Sorkuntza premiengatik zein premia profesionalengatik, musika jarduerarekin konpromiso handiagoa izatearen ondorioz, entseatzeko lokala ordu gehiagoan erabili behar da eta lokala beste tresna bat bihurtzen da musika proiektuaren prozesuan.

ERABILTZEKO ARAUAK

1. Erabiltzaileak

Zerbitzu hau musika aplikatua egiten jarduten duten talde guztiak erabili ahal izango dute. Taldekideen % 50ak, gutxienez, Donostiakoa izan behar du. Udalerrikoa izatea, erroldatze-ziurtagiriaren edo NANaren bidez ziurtatu behar da. Erabiltzailea da instalazioak erabiltzen dituen pertsona edo taldea.

Zerbitzua erabiltzeko, Lokalaren Eskaera Orriak bete behar dira (Taldearen datuak / Erabiltzailearen datuak). Orri horretan erabiltzaileari dagozkion datu guztiak eta nahiago dituen datak eta ordutegiak adierazi behar dira, zeren datu horiek ezinbestekoak baitira erabiltzaile guztiak koordinatu ahal izateko.

Datu pertsonalei dagokienez, taldekide bakoitzak bereak sartuko ditu. Koordinatzen duen pertsonak, sarrerako eta irteerako datu guztiak, entseatzeko lokalak erabileraren eta erabiltzaileen zirkulazioaren estatistika egingo du.

Entseatzeko lokalera sartzeko, ezinbestekoa da lokalak koordinatzen dituen pertsonari jakinaraztea, erabiltzailea noiz iritsi den erregistratzeko eta utzi dioten lokalaren atea irekitzeko. Era berean, irten baino lehen, erabiltzaileak lokalez arduratzen den pertsonari noiz atera den jakinarazi behar dio, lokalaren egoera ona dela egiaztatu ondoren, hark atea itxi ahal izan dezan. Arduradunak hileko ordainketa baimendutako epea baino geroago egiten dela ikusten badu, erabiltzaile horri ez dio utziko lokalera sartzeko. Arduradunak ez dio inoiz lokal baten atea irekiko, erabiltzaile gisa izena eman ez duen inori.

2. Zerbitzuaren ordutegia

Zerbitzua urte osoan zehar irekita egongo da, abuztuan izan ezik, eta astelehenetan eta jaiegunetan itxita egongo da, ondorengo taulako ordutegiaren arabera:

	Gelen erabilera		Jendeari erantzuteko orduak
Astelehena	10:00 – 13:30	arratsaldean itxita	Itxita
Asteartetik ostiralera	10:00 – 13:30	16:00 – 23:00	18:00 – 23:00
Larunbata		11:00 – 20:00	11:00 – 20:00
Igandea		Itxita	Itxita

Zerbitzuaren telefonoa hauxe da: **943 29 80 32**

Harremanetan jartzeko, posta elektronikoa ere erabil daiteke, horretarako helbide honetara jo: musikagela@donostia.org

3. Entsegu motak

3.1. Sei hilabeteko egoitzaren eredia

Taldeek entseatzeko lokalean gordetzen dituzte tresnak eta, gutxienez, **astean bi aldiz** erabili behar dute lokala (bi entsegu). Erabilera mota hau aukeratzen duen taldeetako bakoitzak erabiltzeko ordutegi jakin bat erreserbatu behar du, hala ere, entseatzeko orduak aldatu edo luzatu egin daitezke, lokal bera erabiltzen duten beste erabiltzaile batzuekin eta lokalak koordinatzeaz arduratzen den pertsonarekin adostuta, betiere, talde guztiek, gutxienez, lokala asteen bi aldiz erabiltzen badute.

Lokal bera erabili dezaketen taldeen kopurua, ekipamenduak gordetzeko dagoen lekuaren arabera izango da. Talde bakoitzak, entsegu bakoitza amaitu ondoren, ekipamendua ondo bilduta utziko du, hurrengo erabiltzaileentzako ahalik eta lekurik handiena utziz.

Bi taldek edo gehiago ekipamenduaren parte bat edo ekipamendu osoa partekatzea erabakiz gero, haiek arduratuko dira materialak egoki mantentzeaz eta, materiala kaltetuz gero, zentroak ez du inolako erantzukizunik izango. Erabiltzaileak bere ekipamenduan edo beste erabiltzaile baten ekipamenduan kalteren bat dagoela ikusten badu, berehala jakinarazi behar dio zentroari. Zentroak kaltetutako ekipamenduaren jabeari eta aurreko txandan lokala erabili duen erabiltzaileari deituko die eta erabiltzaile bien arteko batzarra antolatuko du.

Bi erabiltzailek erreserbatutako orduetatik kanpo zerbitzua erabili nahi badute, lokalak koordinatzen dituen pertsona arduratuko da lehentasuna ezartzeaz, zein lehenago iritsi den kontuan hartuta.

Egoitza aldia **sei hilekoa** izango da eta, epe hori pasatu ondoren, egoitza erregimena erabiltzen duten taldeen zerrenda berrikusi egingo da, talde horiek zerbitzua nola aprobetxatu duten kontuan hartuta.

3.2. Txandakatze eredia

Txandakatze-sistema baten arabera da. Sistema horrekin hasiko dira Musikagela lehenbiziko aldiz erabiltzen duten talde guztientzat. Entseatzen duten bakoitzean, taldeek muntatu eta desmuntatu egin beharko dituzte euren ekipamenduak.

Taldeek biltegi bat izango dute eskuragarri, euren ekipamenduak gordetzeko.

Talde bakoitzak, banan-banan edo hilabeteko paketeetan (4 astekoak) erreserbatuko dituzte orduak, dagokion eskaera-orra betez.

Saio bakoitza hiru ordukoa izango da. Denbora horretan ekipamenduen muntatzeko eta desmuntatzeko denbora ere sartzen da.

Sei hilabete pasatu ondoren, taldeek lokalak zenbat aldiz eta nola erabiltzen dituzten ebaluatuko da, zerbitzua zenbat orduan erabili duten eta araudia ondo bete duten ala ez kontuan hartuta.

Txandaketa eredu ondoen baloratzen direnek sei hileko egoitza eredu jarraituko aukera izango dute.

Sei hilabetetik behin, balorazio-prozesua errepikatu egingo da eta, berriz ere, baloraziorik onena lortzen duten taldeek sei hilabeteko egoitzaren eredu erabiltzeko aukera izango dute.

Hiru hilabete pasatu ondoren, talderen batek ez badu lokala, gutxienez, 20 orduan erabili, talde horrek sei hileko egoitza eredu erabiltzeko eskubidea galduko du, aldez aurretik ezarritako sei hilabeteko epea bete arte itxaron gabe eta leku hori azken balorazioaren ondoren hurrengo den taldeari eskainiko zaio.

Musikagelaren zerbitzua erabili nahi duten talde berriak, bakanteak sortzen diren heinean sartuko dira eta sartzeko ordena sortzean dagoen eskabideen erregistroan izena lehenago eman dutenen arabera ezarriko da.

3.3. Musika proiektu elkartuak

Sei hileko egoitzaren zerbitzuaren erabiltzaileen batek musika proiektu baten baino gehiagotan parte hartzen badu, elkartutako proiektuetarako lokal bera erabiltzeko aukera dago, betiere, ondorengo baldintza hauek betez gero:

a) Proiektu bietan, hau da, sei hileko egoitzako zerbitzua erabiltzeko proiektu nagusian eta proiektu harekin elkartutako beste proiektuan, taldekide berak parte hartu behar du (batek, gutxienez).

b) Proiektu elkaturako etengabe leku gehiago behar ez izate. Hortaz, proiektu elkaturako behar den ekipamendua proiektu nagusiarentzako duen lekuan gorde beharko da edo entsegu bakoitza amaitu ondoren atera egin beharko da.

c) Proiektu elkartua lokala erabiltzeko baimena duten proiektuek libre utzi dituzten orduetara egokitu behar da.

d) Proiektu elkartuagatik, premien arabera, txandakatze zerbitzuaren tarifa eta, behar izanez gero, biltegiari dagokiona ordaindu beharko dira.

Erabiltzaileek proiektua elkartua ala independentea den erabakitze aukera izango dute. Koordinatzaileari kontrakoa adierazten ez zaion bitartean, proiektu bakoitza independentetzat

hartuko da eta proiektu horietako bakoitzak sei hilabeteko egoitzako zerbitzu mota erabiltzeko ezinbestekoak diren eskakizunak bete beharko ditu proiektu nagusitzat hartua izan dadin, eta horren ondoriozko eskubideak izan ditzan.

Talde elkartuen entseguak proiektu nagusiaren entseguak balira bezala zenbatuko dira, sei hilabeteko eskakizunak betetzeari dagokionez, horrelakorik egiaztatzea eskatzen den kasurako.

4. Biltegitratzea

Gela bat prestatu da zerbitzua erabiltzen duten taldeek instrumentuak eta ekipamenduak gorde ditzaten. Hala ere, biltegian edo sei hileko txandaketako lokaletan gordetzen diren ekipamenduei dagokienez, zerbitzuak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko, kalteak eragiten badira edota lapurretaren bat gertatzen bada.

Biltegian gordetako ekipamenduak jabearen erabiltzaile-zenbakiaren bidez identifikatuko dira eta biltegitara sartzeko ezinbestekoa da erabiltzailearen agiria edo baliozko nortasun agiria aurkeztea (NAN, gidatzeko agiria, eta abar.).

Jabeak zentroko erabiltzaileak diren bitartean baino ezin izango dira ekipamenduak biltegitan gorde. Erreserbak sarriago egiten dituzten taldeek lehentasuna izango dute biltegia erabiltzeko. Hain sarri entseatzan ez duten taldeek, lekua dagoenean baino ezin izango dute biltegia erabili.

5. Tarifak

Hileko ordainketa aurretik egingo da, debitu- kreditu-txartelaren bidez.

Egoitza	Hileko ordainketa	75 €
Txandakatzea	3 orduko saio bat	10 €
	3 orduko saio bat astero, hilabete batean. (Lau saio guztira)	32 €
	3 orduko bi saio astero, hilabete batean. (Zortzi saio guztira)	50 €
Biltegia	Talde bakoitzaren ordainketa hilabete batean	7 €

6. Gaueko sarbidea ekipamenduak kargatzeko eta deskargatzeko

Musikagelako bulegora bakarrik ekipamenduak (anplifikagailuak, instrumentuak, eta abar...) deskargatzeko sartu daiteke, horretarako prestatu den sarbidea erabiliz.

Gauetz sartzeko eguna aldeztu aurretik jakinarazi behar zaio lokalak koordinatzen dituen pertsonari. Egun horretan, giltza emango zaio zerbitzua eskatzen duen taldeko erabiltzaileari. Erabiltzailea

giltzaz arduratuko da itzuli arte. Giltza zerbitzua irekita dagoen lehen lanegunean entregatu behar da.

Giltza hartzeko, **40 euroko fidantza** ordaindu behar da. Dirua giltza itzultzen denean berreskuratuko da.

Zentroak ez du gaueko ordutegian geratzen diren kalte eta lapurreten ondoriozko erantzukizunik izango.

7. Zigorrak

Zigorrak hilabetean erabiltzeko debekua izatetik abonatu gisa behin betiko baxa izaterainokoak izan daitezke, ondorengo kasuetan:

- Hileko kuotaren berandu ordaintzea. Atzerapena, gehienez, hurrengo hilabeteko 5. egunera artekoa izango da.
- Ordutegia behin baino gehiagotan ez errespetatzea, lokala erabiltzean inskribatzeko orrien erreserbatutako ordua gaindituz.
- Lokalak koordinatzen dituen pertsonak antolatutako batzarrera huts egitea justifikaziorik gabe.
- Gauzak hondatzea edo kalteren bat eragitea eta lokalen koordinatzaileari ez jakinaraztea.
- Zerbitzurako instalazioak ez errespetatzea (zikintzea edo kalteak eragitea) edo begirunerik gabe jokatzea.
- Geletan erretzea eta/edo alkoholdun edariak hartzea.